

2005EKO APIRILAREN 5EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko apirilaren 5ean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2005eko martxoaren 16an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren, 2005eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 3 zbk.dun fakturen zerrenda, LAUROGEITA BAT MILA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIKA euro eta HOGEITA HAMAHIRU zentimo (81.271,33 €)koa, bere espedientean jasotzen dena, onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- UHAITZ 2-3 OBRAKO AZKEN ZERTIFIKAZIOA.-

Jarraian bere onarpenera aurkezten da Construcciones Aburuza, S.A.k Uhaitz 2-3 etxeen inguruetan egin dituen berrurbanizazio lanen zertifikazio bakarra eta azkena dena. Zertifikazio honen zenbatekoa EHUN ETA HEMEZORTZI MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI EURO ETA HOGEITA HIRU ZENTIMO (118.569,23 €) da eta udal arkitekto teknikoaren oneritzia darama.

Tokiko Gobernu Batzordeak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zertifikazio hau onartzea erabakitzen du.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etkez-Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 611 zbk.dun esped.: astean 5 egunetan, egunean ordu erdiko zerbitzua ematea. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %100 izango da.

- 726 zbk.dun esped.: Bere osasun egoeraren hobekuntzaren zioz zerbitzutik baja ematea 2005ko martxoaren 31 datan.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak. -

- 557 zbk.dun esped.: Betaurrekoak erosteko 127,00 €ko dirulaguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.
- 206 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairurako gastuak ordaintzeako laguntzetatik baja ematea 2005eko apirilaren 30ean, beste etxe batera bizitzera joatearen zioz.
- 490 zbk.dun esped.: ur barogailua konpontzeko 131,24 € ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.

Minusbaliatuen garraioa. -

2005 urterako, Ordiziako Gureak Tailerrak-etara garraioa ordaintzeko dirulaguntza ematea ondorengo pertsonen:

- 411 zbk.dun esped: 350,27 € urtean / 31,84 € hilean abuztua izan ezik.
- 252 zbk.dun esped: 350,27 € urtean / 31,84 € hilean abuztua izan ezik.
- 188 zbk.dun esped: 350,27 € urtean / 31,84 € hilean abuztua izan ezik.
- 107 zbk.dun esped: 303,60 € urtean / 27,60 € hilean abuztua izan ezik.

V.- FESTATAKO TXOZNAK. -

Festetan irekitzen diren taberna eta txoznen inguruan honako eskaerak egon dira:

Txoznak jartzeko 4 eskaera egon dira: bata, Haizea Begiristain Laimunsek Bai Euskal Herriari Taldearen izenean aurkeztutakoa; beste bat, Gorka Herrero Sanchezek Alde Hemendik Taldearen izenean aurkeztutakoa; beste bat, Ainitze Sala Insaustik Presoen Lagunak Taldearen izenean aurkeztutakoa eta azkenik, Aitor Romero Alistek Lazkaoko Gazte Asanbladaren izenean aurkeztutakoa.

Lokaletan tabernarik jartzeko eskaririk ez dago orain artean eta hemendik festak bitartean egongo balira Alkatetzaren ebazpen bidez ebatziko lirateke, beti ere hemen jartzen diren baldintzak jarraituko direlarik erizpide gisa.

Tokiko Gobernu Batzarrak, eskaera hauek aztertu ondoren, honako erabaki hauek hartzen ditu:

Taberna eta txoznak jartzeko baimena ematea, jarraian adierazten diren baldintzak ezarritik:

- Txoznak jartzeko kokalekua Udaletxe atzea izango da.
- Txozna eta taberna bakoitzak 140 € euro ordaindu beharko du, hau da, iazkoa KPIren aldaketaren igoerarekin.
- Ixte ordutegia, geihenez ere goizeko lau terdiak izango da.
- 18 urtez beherakoentzat alkohol salmenta debekatuta dagoela adierazten duen kartelak jarri beharko dira kus daitezkeen tokietan.
- Txoznak maiatzaren 5erako kenduta egon beharko dira.
- Tasa ordainketa maiatzaren 31a baino lehen egin beharko da, Udalak herriko ban-
ketxetan horretarako dituen edozein kontu korrontetan.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.